

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Adi Holden.**  
Adi Holden.  
Danbaka/  
Gaztelupeko Hotsak.  
Iraupena: 48'10".  
10 euro.

## Melodiaren, distortsioaren eta arriskuaren mugan

BERGARAKO talde gazte honetako kideek eskarmentua dute beste proiektu batzuetan: esaterako, Cool Panic talde rockeroan; baina, oraingoan, erregistroz eta testuinguruz erabat aldatu dute. Iraganeko ingelesez utzi eta euskara hautatu dute; eta rock-and-roll eta power-punk-rocka alboratuta, 1990eko hamarkadako intentsitatea duen rocka hartu dute abiapuntu. Proiektu honekin oso kontzertu gutxi egin dituzten arren, jada erakutsi dute gai direla etengabe

esperimentatzeko eta giro berriak sortzeko. Iaz Danbaka lehiaketako Debagoieneko talde onenaren saria eskuratu zuten eta disko hau da emaitza. Ama Say, Cancer Moon, Ironic Cancer Phobia... dira gogoratu dizkiguten hurbileko izenetako batzuk, baina bide propioa darabilte melodiaren, arriskuaren, distortsioaren eta intentsitatearen ertzetan.

[www.myspace.com/adiholden](http://www.myspace.com/adiholden)

### Adi Holden

## «Lehen diruak ez zituen kontzertuak hainbeste baldintzatzen»

### Musikan "fedea galduta" daukazue?

Fedea ez, aspertuta gaude musikari ez profesionalok zuzenekoak egiteko ditugun zailtasunekin. Lehen, diruak ez zituen kontzertuak hainbeste baldintzatzen. Gaur egun, dirurik sortzen ez duten taldeek jotzeko aukera gutxi dute. Hala ere, badaude "oasiak", adibidez Bergarako gaztetxea, non ondo tratatzen dituzten musikari guztiak, eta musika zale asko gerturatu den.

**"Ez dezagun ahaztu: harria eta egurra nire sorterria".  
Industria artean hazi izanak markatu zaituzte?**

Nerabezaroan eskolara joatean egunero Deba ibaia ikusten genuen eta beldurgarria zen; industrializazioaren efektu bortitza airean sumatzen zen. Gainera, taldeko asko industrializazioak bul-

tzatutako immigrazioaren seme-alabak gara. Industrializazioak eta post-industrializazioak bete-betean harrapatu gaituzte, gure nortasuna eta jokaera moldatuz.

### Zer eman dizue euskarak? Gertutasuna, mezuekin identifikatzea?

Musikan hastean entzuten genituen talde eta bakarlarrien egiteko erara hurbiltzea nahi genuen. Orduan ingelesez abesteko moda zegoen eta gu ere harrapatu genituen. Hortik pasa ondoren, Adi Holdenekin euskara aukeratu

genuen. Eta, bide batez, orain arte kasu egin ez genion alor bat garatu dugu: hitzena eta esanahiena.

### Beldurra eta desioa dira diskoaren muina?

Bai, izan daiteke. Beldurra ematen digu gizarteak nola estutzen gaituen. Hipotekak, lanaren estresa, ziuertasun eza, despertsionalizazioa, buruko gaitzak... Iraganean bizitako esperientzia politikak desiratzen ditugu; edo irudikatu edo amesten ditugunak. Hori bai, aurrera begira beti.

### Zuen kontzertu bakoitza diferentea da?

Oso gorabeheratsuak izan daitezke; gauza berriak egiteko prest gaude. Azkeneko kontzertuan DJ baten laguntza izan genuen, giro-tze lanetan. Agian hurrengo bi baxurekin edo hiru gitarrarekin egingo dugu. Musika esperimentazioarekin lotzen dugu. ■

